

GARDENTASUNERAKO MEMORIA

Txostena.

Nafar gizartea murgildurik dago gertatzen ari diren aldaketei egokitzeko prozesu batean. Hala, merkatuen globalizazioak, informazioaren gizartearen etengabeko aurrerapenak eta lanbide kualifikazioko eskakizun handiagoek markatutako panorama berri baten aurrean gaude.

Testuinguru honetan, Europar Batasunak enplegurako proposatzen dituen estrategia koordinatuek ahalegin berezia egiten dute mugitzeko eta askatasunez zirkulatzeko gai izanen den biztanleria aktibo kualifikatua lortzeko. Eta horren garrantzia berariaz azpimarratzen da Europar Batasunaren Tratatuan.

Horrenbestez, beharrezkoa da Lanbide Heziketaren araudi esparrua berritzea, lanbide kualifikazioen eta lan merkatuko beharren artean lortu nahi den lotura une oro bermatzearren.

Ildo horretan, lan merkatuen bilakaerak agerian utzi du ikasleek gaitasunak indartu behar dituztela laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako alderdietan. Lanbide Heziketako ikasleek enpresetan praktikak egiten dituzte, eta hartara, enpresak gero eta gehiagotan eskatzen ari dira ikasle horiek laneko arriskuen prebentzioko ziurtagiria izatea, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan esaten den bezala. Hori horrela, erabaki zen komenigarria litzatekeela lanbide heziketako titulu guztietan zeharkakotasunez ematen den Lanerako Prestakuntza eta Orientazioa lanbide modulua birdiseinatzea.

Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, Hezkuntzako Lege Organikoari egokitutako Lanbide Heziketako teknikari eta goi mailako teknikari tituluen egitura eta curriculum ezartzen dituzten foru dekretu batzuk aldatzen dituen Foru Dekreturako proiektuak barne hartzen ditu goi eta erdi mailako ondoko tituluak: Natur ingurunearen aprobetxamendu eta kontserbazioko teknikaria, Mendekotasuna duten pertsonen arreta egiteko teknikaria, Zurgintza eta altzarigintzako teknikaria, Karrozeriako teknikaria, Elikagaien elaborazioko teknikaria, Osasun larrialdietako teknikaria, Larrialdietako eta babes zibileko teknikaria, Estetika eta edergintzako teknikaria, Hondeaketa eta zundaketetako teknikaria, Farmaziako eta parafarmaziako teknikaria, Inprimaketa grafikoko teknikaria, Beroa sortzeko instalazioetako teknikaria, Hozteko eta girotzeko instalazioetako teknikaria, Lorezaintza eta loradendako teknikaria, Ile-apainketako eta ilearen kosmetikako teknikaria, Kimika instalazioko teknikaria, Merkataritza-jardueretako teknikaria, Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpeneko teknikaria, Soldadura eta galdaragintzako teknikaria, Sukalde zuzendaritzako goi mailako teknikaria, Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria, Estetika integraleko eta ongizateko goi mailako teknikaria, Abeltzaintzarako eta animalien osasuneko laguntzarako goi mailako teknikaria, Basoa eta natur ingurunea kudeatzeko goi mailako teknikaria, Diagnosi-irudiko eta medikuntza nuklearreko goi mailako teknikaria, Laborategi klinikoko eta biomedikoko goi mailako teknikaria, Analisisien eta kalitate kontrolaren laborategiko goi mailako teknikaria, Bero eta fluido instalazioen mantentze-lanetako goi mailako teknikaria, Paisajismoko eta landa inguruneke goi mailako teknikaria, Elikagaien industriako prozesuetako eta kalitateko goi mailako teknikaria, Hartz protesietako goi mailako teknikaria, Garraioko eta logistikako goi mailako teknikaria, Elektronikako mantentze-lanetako goi-mailako teknikaria, Automatizazioko eta robotika industrialeko goi mailako teknikaria, Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko goi mailako teknikaria, Mekatronika industrialeko goi mailako teknikaria, Gizarte

integrazioko goi mailako teknikaria, Argazkigintzako diseinuko eta arte plastikoetako goi mailako teknikaria, Produktu grafiko inprimatuari Laguntzeko arte plastikoetako eta diseinuko teknikaria. Hori horrela, aldatu nahi diren aipaturiko tituluen egitura eta curriculuma ezartzen da.

Entzunaldia eta parte-hartzea

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legeak 13. artikuluan dio Administrazio Publikoak, bere eskumenen eremuan, oro har, eskuragarri jarri behar diela herritarrei informazio aktiboko zerrenda argia, objektiboa, eguneratua eta erraz eskuratzeko modukoa. Informazio hori, gehienbat, izaera orokorrekoa da eta Nafarroako Gobernuaren Atarian aurki daiteke. Aipaturiko 13. artikuluko i) idatz-zatian aipatzen da nahitaez argitaratu behar dela unean-unean abian diren arauak prestatzeko prozeduren zerrenda, adieraziz horien xedea eta tramitazioaren egoera. Agindu hori betez, proposatzen den foru dekreturako proiektua ondoko webgunean argitaratu da:

<http://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza>

Proposatzen den foru dekretua jendaurrean jarriko da hamabost egunez. Alegazioetarako gaitu diren bideak behar bezala iragarriko dira aipaturiko webgunean eta herritarrek beren ohar eta iritziak emateko aukera izanen dute.

Jendaurreko aldiari jasotako alegazioak aintzat hartuko dira erabakiak hartzeko orduan. Behin herritarrek adierazitako oharra eta iritziak aztertu ondoren, hartutako erabakien berri emanen da eta jakinaraziko da jasotako iradokizun eta gomendioak onartu diren edo zergatik baztertu diren, Nafarroako Gobernuaren Interneteko Atarian argitaratuko den azken txosten baten bidez.

Gainera, proposaturiko foru dekretua Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenaren mende geldituko da. Organo horretan ordezkaturik daude herritarrak, hezkuntzaren esparruan garrantzi handiena duten kolektiboetako erakundeak, antolamenduen eta elkarten bidez.

Halaber, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluaren aurrean aurkeztuko da, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua sortzen duen uztailaren 3ko 247/2000 Foru Dekretuko 2.e) artikuluan ezarritakoa betez. Artikulu horren arabera, aipaturiko erakundeak dagokio, besteak beste, lanbide heziketa arautuko titulazioetako curriculumen diseinuen buruzko txostenak egitea, Nafarroako Foru Komunitateko eskumenen esparruan, eta lanbide heziketaren maila eta espezializazioei dagozkien titulazio berriak proposatzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 15ean

Lanbide Heziketaren Zerbitzuko zuzendaria

Stua.: Esther Monterrubio Ariznabarreta